

Xipri Arbellalde

IDAZLE ETA APAIZA

Negozio katolikoa

Ail Ederrik ikasi dudala joan den hila-betea Elizako ontasunez! [ARGIA 2.228 zenbakia] Lehenago jakin izan banitu horiek denak! Haurra nintzelarik ez nien egunorok pinta esnea emanen Heletako gaixoak musu-truk artatzen zituzten moiei. Estatuak ez baitzuen erizainik pagatzen garai haietan. Nire auzoak ez zion batean kilo bat lursagar, bestean dozena erdi bat arrautza emanen neskei eskola musu-truk egiten zion mojarri.

Entzuna baitut Iparraldeko neska eskoletan %95 moiek sortuak direla, Paueko artxiboetara joan beharko dut lehenbailehen zinez horrela izan den segurtatzeko! Seguru naiz Isturiztarrek gezurra sakatu didatela 12 urtez. Eliza zaharberritu dute: 70.000 euro! Erakunde publikoek beretua 1905ean, gastuen %75a haiek pagatu zutela sinetsi dut. Ez ahal du diru horren erdia hango apaizak beretzat hartu!

Hamar euroekin eguna pasatu baitut Vatikanoko erakustokian, seguru naiz Bouyghes-en esku izan balitz urrik sartuko nintzela. Aitortu behar dut izpiritu bihurri batek erran didala hamar zatitan eman lezakeela erakusgai hori eta bakoitzaren sarrera karioago pagarazi. Nolako gaixakerik asmatzen dituzten zenbaitek besten zikintzeko! Nolaz ez digu ezer erran artikulua Caritasek eskutan erabiltzen dituen milaka milioiez? Besteak beste Afrikako 800 erietxez goiti bere gain dituela Elizak baitio-



DANI BLANCO



Flash bat izan dut joan

den maiatzean artikulua

hori irakurtzean. Giza

gaixo inozente bat baizik ez

nintzen orain arte



te, malaria, HIES, umeen behehitiko eta beste artatzeko, jakin ezazue gezurra latia direla horiek denak. Abbe Pierre eta Mère Teresak eskutan ibili milioietarik zenbat ez dituzte berentzat gorde! Ama maitea! Pedro Aramendi lasalletar fraileari Eusko Jaurlaritzak duela bost urte eman baitio Ellakuria saria, ez ahal du dirua Etiopiako palazioetan xahutzen, aire egokituan, gero Franck Ribéry bezalako futbolari famatuei igorriko dizkien adin-gabeko neska ederren konpainian. Eta ez musu-truk!

Marokon, nomada berbereen erdian, egun hemen, bihar han, argi indar, ur eta komunik gabe, 40 urte honetan oihala etxe batean bizi den moja gipuzkoar hura, nongo diruarekin etorri ote da familiaren ikustera duela bi urte? Orain badakit: Elizako ondasunetarik hartua!

Txema Auzmendi jesuitaren etxean bizi diren batzuk etorkin eta preso ohiak direla erran badidate haren lagunek, joka nezake poliziak direla?

Horra zergatik den libre atera kargurik gabe. Eta pagatu duen bermea, nondik zeukan ez bada Elizako ondasunetarik?

Flash bat izan dut joan den maiatzean artikulua hori irakurtzean. Giza gaixo inozente bat baizik ez nintzen orain arte. Orain, argi ikusten dut nolako jukutrien erdian murgildurik nagoen.

Eskerrak Jainkoari. ■

TXANDAN

Juan Ramón Makuso



Ez da apokaliptikoa, nahiz eta badirudien apokalipsi garai batean bizi garela.

Inpresioa da. Ustea. Iritzia. Giroan usaintzen dudana. Kale bazterretan ikusten dudana. Autobus geltokian, mundua gel-dirik dagoenean, mugitzen dena. Egunkarietan irakurtzen dudana. Telebista pizten dudanean, ikusten dudana. SMSen doinuak iragartzen didana. Facebooken lagun andanaren diosalek inspiratzen didatena. Eta hau guztia idazten dudanean, pantailaratzerakoan, pentsamendua zuga jarrita daukat irakurle, jada hau irakurtzen nazkatuta

Gure porrota

zauden hori, agian barrundatuz, zer du gizon honek? Zergatik helarazten digu bere, badirudi, erretxina-mendua? Eta esango dizut ez nagoela haserre. Ez eta triste ere. Ez eta malenkoniatsu. Agian, besterik gabe, nire betaurrekoen kristalek ez didate, ene begirada honetatik, beste paisaiarik uzten ikusten. Zuk ere begiratu lasai, irakurle, eta porrotaren itzalak harrapatzen bazaitu, ez kezkatu. Sanoa da. Giza-kiok, gizakiak garelako, porrota gurea dugu. Eta ez da ezer gertatzen. Edo bai. Poza dut bihar beste ahalegin bat eduki dezakedalako. Beste hiri bat bizitzeko. ■